

Udal talde politikoaren iritzia



BARDINTASUNA M8

Datorren astean, 2022ko martxoaren 8an, berriz ere, eremu eta egoera bakoitzean emakumeen eta gizonen artean garatu behar den benetako berdintasunaren eta egiazko berdintasunaren aldeko aldarrikapena ikusaraziko dugu. M8a egun zeharo berezia da berriro ere, zeren eta edozein gizarte aurreratu eta demokratikoki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin duen inplikazioa eta konpromisoa azpimarratzen baitira. Euzko Alderdi Jeltzaleak berdintasunarekin duen konpromisoa argia da, eta egiaztatzeko erraza. Gernikako Estatutuan lehenik, eta Eusko Legebiltzarrean gero, Euzko Alderdi Jeltzaleak berdintasuneko politika aurreratu guztiak bultzatzen lan egin du eta lan horretan jarraitzen du, tinko, emakumeen diskriminazio-modu guzti-guztiak ezabatze aldera. 1988an sortu zen Euskadin, otsailaren 5eko 2/1988 Legea onartuta, Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea. Eta hark adierazten duenez, "Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen helburu nagusia Euskadiko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra erdiestea



da". Euzko Alderdi Jeltzaleak berdintasunaren aldeko konpromisoa hartu du, Euskadik beti jardun duelako arlo horretan buru; hain zuzen ere, konpromiso horri eutsi dio orain eguneratze-prozesuan dagoen 4/32005 Legearekin ere, edo gure erakundeek, Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek uste osoz eta prestasun osoz lantzen dituzten berdintasun-planekin. Getxon, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere konpromisoa proposamen argi eta zehatz baten bidez azpimarratu du beti, baita 2019ko hauteskundeetako programan ere: Getxo, herri kohesio-natua eta gizarte arloan anizkoitza. Gure herri honetan pertsona eta bizi-proiektu guztiak dute lekua. Gure konpromisoa gizarte-kohesioa da, inor atzean utzi barik. Emakumeen eta gizonen berdintasunetik, errespetutik, aniztasunetik eta kulturartekotasunetik abiatuta jardun. Eta horretan ari gara, EAJ-PNVren hauteskunde-programaren konpromisoa eta Amaia Aguirre alkatea buru duen taldea betetzen. 8M Emakumeen Nazioarteko Eguna.



ZUGATZARTEKO BIDEGORRIARI EZ



Alkateak aspaldi Zugatzarte etorbideko errete bat kenduz jarri zuen plastikozko bidegorria iraunkorra izango dela dirudi. Hala ere, obrak iristearrekin batera, etengabe iritsi dira herritarrek haren aurka agertu dituzten kekek ere. Bidegorri berri bat arrisku-tua da bere ibilbidean dituen garaje-irteera ugariengatik eta oinezkoen pasabideengatik; aparkalekuak kenduko

ditu eta, azkenik, bidegorri hori ez da beharrezkoa, metro gutxira bidegorri paralelo bat dagoelako. Horregatik guztiagatik, Udalaren Osoko Bilkuran obrak gelditzeko eta bidegorri hori berriro jartzeko eskatu dugu. Tamalez, EAJk entzungor egiten dio berriro eskari horri, eta aurrera jarraituko du bere proiektuarekin, herritarren gaitzespena gorabehera. #despiertagetxo



GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA ESKUBIDEA ORAIN!

2016an EH Bildu eta orduko Udalgobnuaren artean erdietsitako aurrekontu akordioan gure proposamena onartu eta 2017an lehen aldiz Getxon, gazteek emantzipazioarako diru-laguntzak eskuratu ahal izan zituzten. Urteak igaro ahala, udal gobernu honen kudeaketa kaxkarra agerian geratu da, diru-laguntzak bi edo hiru urteko atzerapenarekin eman izan dituztelako (oraindik ere 2020ko diru-laguntzak eskaini gabe daude). Ondorioz, herriko gazteen aukera bakarra gurasoen etxean jarraitzea edo herritik alde egitea da.

Lagunak den arren, diru-laguntza honek zenbait gabezia ditu, besteak beste, honek berak duen epe muga urtebetekoa izatea. Zalantzarik gabe, hau oztopoa izan daiteke gazteek eskuratutako emantzipazioa denboran mantentzeko. Horregatik, 2020ko

urrian EH Bildutik mozio bat aurkeztu genuen beharrezkotzat jotzen dugulako "indarrean" dagoen gazteen emantzipazioarako diru-laguntza hau ez ezik, beste lerro bat ere sortzea, urtebete beharrean urte gehiagotan alokairua ordaintzen lagunduko dien lerroa, hain zuzen. Gainera, bigarren lerro honek bestelako kolektiboak ere barnebiduko lituzke, gazteek gain. Mozioa aurrera atera zen udal gobernuaren (PNV eta PSEren) aldeko bozkekina.

Neurri bakan batzuek ez dute etxebizitza arazoa erabat konponduko; errotik abiatuko den estrategia oso bat beharrezkoa da. Baina bitartean, egoera arintzeko neurriak behar dira. Gazteek etxebizitza behar dute eta Getxok gazteak behar ditu. Hori dela eta, egoera hau salatzen jarraituko dugu.



ADINEKOEN BAZTERKETAREN AURKA

Alderdi Sozialista konprometituta dago **eten digitalaren eta finantza-bazterketaren aurkako borrokarekin**, eten horrek bereziki adinekoei eragiten dielako. COVID-19aren pandemiak eragin duen presentzialtasunik ezak areagotu egin du arazo hori, eta **kolektibo asko oinarriko zerbitzuetatik aldentzen ari da**.

PSE-EEkook uste dugu erakundeek erantzun egin behar dutela, eta, horregatik, euskal erakundeetan adinekoren eten digitalaren eta finantza-bazterketaren aurkako ekimen-sorta bat erregistratzen ari gara, erakunde publikoei eta pribatuei, batez ere banku-

sektorekoei, **adinekoei arreta egokia emateko eskatuz**, "on line" izapideen ordezko **alternatibak eskainiz** eta aurrez aurreko arreta jasotzea erraztuz. Izan ere, oinarriko zerbitzuek, hala nola medikuarekin zita bat eskatzeak edo Gizarte Segurantzaren bidez kudeaketak izapidetzeak, irisgarriak izan behar dute guztientzat, **kudeaketa egin ahal izateko hirugarren pertsonen mende egon beharrik gabe**. Izan ere, Internet aurrerapen handia bada ere, ezin da bide bakarra izan. Hain zuzen, zerbitzu presentzial guztiak ordezkatzean, bazterketa sortzen da.



8M: GUREA DENA ALDARRIKATZEN

M8ak beste aukera bat dakarkigu XXI. mendean biztanleon erdiei oraindik ere urratzen zaizkien eskubideak aldarrikatzeko. Soldata-arrakala, zainketen krisia edo indarkeria matxista dira feministek antzematen ditugun arazoetako batzuk; arazo horiei oinarri-oinarritik heldu behar zaie: patriarkatutik. Sistema hori desagerarazteko egitura-aldaketak behar dira, baina baita harea-aletxo asko

jartzea ere. Horregatik, azken osoko bilkuran bi mozio feminista proposatu genituen, eta horietatik genero-arrakala konpentsatzeko emakume ekintzaileei laguntzeko plan bat jorratzeko eskatu genuen. Orain, inoiz baino areago, zuon udalerrietan eta erkidegoetan mugimendu feministek antolatzen dituzten mobilizazioetan parte hartzeraz animatzen zaituztegu. Gora borroka feminista!